

·Hilabete honetako gaia: Zer dago Ibaiondon? ·Zuek bai jakin!: Esteban Barrena
·Elkarrizketa: Josu Aztiria ·Izerdi patsetan: Urretxuar eta zumarragarrik Ordiziako
rugby taldean ·Boteprontoan: Mitxel Gonzalez

Herri Aldizkaria Otamotz

2007ko
otsaila
124. alea



La★Salle Legazpi

Zumarraga - Urretxu



Irakasten eta hezitzen

Matrikulazio epea: otsailaren 26tik martxoaren 9ra

☎ 943 72 15 14 - Fax: 943 72 56 73



Euskadi

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Zer dago Ibaiondon?
- 10 Komikia / Egurra partitzen**
- 11 Zenbat buru, hainbat aburu**
Zer dakizu Ibaiondo adingabekoen zentroaz?
- 12 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 13 Argazki zaharra**
- 14 Kolaborazioa**
Martin Aranburu
- 16 Klik eta klik**
Andoni Berriotxo
- 19 Gutuna**
- 20 Zuek bai jakin!**
Esteban Barrena
- 24 Elkarrizketa**
Josu Aztiria
- 26 Izerdi patsetan**
Urretxuar eta zumarragarrak Ordiziako rugby taldean
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Gure gomendioa**
- 30 Boteprotona**
Mixel Gonzalez



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Zer dago Ibaiondon?

Hiru urte pasatu dira Azkarraga sailburuak San Kristobal auzoan Ibaiondo inauguratu zuenetik. Adingabeentzako heziketa-zentroa den edo kartzela den, egitasmoak eztabaida sortu zuen. Orain, berriz, apenas hitz egiten da gaiaz. Ibaiondoren eta bertako gazteen berri izateko, Eva Ammann hezkuntza arduradunarekin, Cesar Manzanos Salhaketako bozeramalearekin eta bertan egon zen Mikel Arretxerekin izan gara.

Eva Ammann: "Sistema penala errepresiboa da, baina giza edukia eman behar zaio eta gazteak pertsonak bezala tratatu"

Eva Ammann, Pablo Martínez zuzendariarekin, Zumarragako udaletxeko balkoian.



Adingabekoentzako zentroak Eusko Jaurlaritzaren esku daude, baina hauen kudeaketa azpikontraten esku egoten da. ETAk Ibaiondon lehergailua jarri zuenez, ez zen enpresarik aurkeztu bertako kudeaketaz arduratzeko lehiaketara. Hori dela eta, Jaurlaritza eta espainiar estatuko gizarteratze institutua akordio batera heldu ziren. Hala, funtzionarioekin oposizioa egiteko aukera izango zen.

Ibaiondon lan egiteko bere burua aurkeztu zuenetako bat Eva Ammann da, bertako hezkuntza arduraduna. Ammann kataluniarra da, baina euskaldun batekin ezkondu zen eta aspalditik bertan bizi da. Helduen kartzeletan lan egin du

Zumarragara etorri aurretik. "Jaurlaritzak ez zekin ondo zer zetorkion. Izan ere, gainontzeko zentroak azpikontraten esku daude eta Eusko Jaurlaritzako funtzionarioek ez dute hona etorri nahi, gazteekin lan egitea oso gogorra baita. Heldu gehienak aukeratu duten bidearen ondorioz heldu dira kartzelara, baina bizitzak ekarri ditu hona gazteak. Batzuen gurasoak kartzelan ezagutu nituen".

Ammann-ekin batera, beste hiru arduradun daude: zuzendaria, administratzailea eta administraria. "Gutako batzuk administrazio zentralak utzitako funtzionarioak gara eta besteak Eusko Jaurlaritzakoak. Gainontzeko langileak ez dira funtziona-

rioak. Asko herrikoak dira, baina kanpotik datozenei kosta egiten zaie luzaroan gelditzea. Izan ere, etxebizitzak oso garestiak dira eta hemen goran ez dugu kafetegia bat ere, adiskidantza giroa sortzen lagunduko duen toki bat. Lan baldintza onak ditugu, baina oso gogorra da".

Langileen %80 emakumezkoa da. "Hezitzaileak oso gazteak dira, baina primeran moldatzen dira eta mutikoen errespetua irabazi dute. Hasieran arazoak izan zituzten, iraindu egiten zituzten eta zigortu egin behar izan genituen. Kontuan izan behar da mutiko indartsuak ditugula. Batzuek 20 urtetik gora dituzte, nahiz eta delitua 18 urte baino gutxiagorekin egin zuten. Zaindarien itxura hutsarekin nahikoa dute errespetua lortzeko, baina neskek beste erreminta batzuk garatu dituzte. Edozein tokitan lan egiteko prest daude dagoeneko".

Bost eraikinetan, taldetan banatuta, bizi diren gazteekin lan egiten dute. "Hezkuntza moduluetan banatuak daude. Bata bederatzi laguneko da, hiru zazpi lagunekoak dira eta txikiena bostekoa. Bakoitzean koordinatzaile bat eta hamar hezitzaile daude. Gainera, gizarte langileak eta psikologoa daude eta eguneroko mediku zerbitzua. Sekulako muntaia da eta aurrekontu oso handia du".

Egun ia talde guztiak beteta daude. Bertan dauden erdia arabiarak dira eta asteburuan herriko mutiko batzuk ere joaten dira zigorra betetzera. "Barnetegi baten modukoa da. Talde bakoitzak bere etxea du eta hor logelak, sukaldea, egongela, patioa, komuna... dituzte. Bideo-kontsola eta Canal + izan zituzten, baina gainontzeko gazteek baino gehiago izatea ez zitzaigun normala iruditzen. Telebista

eta DVDa dituzte. Familien moduan bazkaltzen dute: guztiak elkarrekin esertzen dira eta hezitzaileek aitaren eta amaren tokia hartzen dute. Gazteak nahastuta daude, jarrera txarra dutenek besteez gantik ikas dezaten", azaldu du.

Gehienak lapurretak egiteagatik, borroketan parte hartzeagatik edota Aldundiaren pisuetatik ihes egiteagatik daude Ibaiondon. Etxekoak jo dituztenak ere geroz eta gehiago dira. Batek bakarrik du hilketa bat bere gain. Batazbeste lauzpabost hilabete ematen dituzte bertan, baina

"Garrantzitsua da herritarrak hona gerturatzea. Festaren bat egiteko asmoa dugu, ate irekien eguna modukoa"

azken horrek sei urtetako zigorra du. "Behin baino gehiagotan harrapatu dituztenez, barruan sartzen dituzte. Hona etorri aurretik zainpeko askatasunean izan dira, gizarte lanak egin dituzte... hamaika tokitatik pasatu dira. Hona lehenengoz heltzean beldurtu egiten dira, Ertzaintzak lagunduta etortzen baitira eta hesiak ikusten baitituzte. Hemen zer aurkituko duten azaltzen diet eta arropa garbia ematen zaie: txandala eta kamiseta. Biharamunean, dutxatik pasatu ondoren, errekonozimendua egiten zaie. Lehen astean egokitzen egiten dute eta hezitzaileekin ematen dute denborarik handiena".

Gazteek hainbat lan izaten dituzte egune-

ro. "Txandaka harrikoa egin behar dute edota komunak garbitu. Eskolan duten jarrera ere puntuatzen da. Bakoitzak beharrezkoa duena ikasten du: gaztelera, irakurtzen eta idazten, DBH... Tailerrak ere badituzte: arotz, lorazain, igeltsero, margolari, elektrikari eta informatikari lanak dituzte. Gimnasia ere egiten dute. Gainera, bakoitzari bere beharren araberrako plangintza eta helburuak ezartzen zaizkio: bere osasunaz arduratzea, denetik jatea... Ostiralean koordinatzailearekin elkartzen dira eta astean zehar egindako lanaren errepasoa egiten dute".

Zumarragakoa da, Eusko Jaurlaritzaren zentroen artean, zorrotzena. "Hemen bakarrik daude hesiak. Jarrera ona puntuatu egiten da eta, puntu kopuru zehatz bat lortuz gero, irteeretan parte hartzen hasten dira. Beranduago, zentro irekiagotara joaten dira. Haietatik, pisuetara".

Ammann-ek dioenez, guztiek gauza bat dute komunean: droga kontsumoa. "Arazo psikiatrikoekin etortzen dira asko, denetarik hartzen baitute: pastillak, kokaina, kola, alkohola, ketamina... Gauza bat dute ona: asteburuetan bakarrik kontsumitzen dute eta ez dute mendekotasunik. Hona heldu eta hamabost egunera gazteak hobeto egoten dira. Astelehenero psikologo kliniko bat etortzen da eta aurki droga kontsumo arduratsuari buruzko tailerra eskaini behar diegu".

Horretaz gain, Gazte Asanbladakoekin elkarlanean hasi dira. "Gaztetxeak bisitan izan ziren eta aurki batukada, tinbal, txalaparta eta skate ikastaroak eman behar dituzte. Batzuk eta besteak oso ezberdinak dira, hemengoek ez dute gizarte gaietan interesik, baina badituzte gauzak komunean: kirola, adibidez.

hilabete honetako gaia

Lagunak izatera hel daitezkeela uste dut. Herrian integratzeko lehen ekimena da. Zumarragako parrokiako Iñakirekin ere lanean hasi gara", dio Ammann-ek.

Ibaiondoko eta herriko gazteen arteko topaketa mamitsua izan zen. "Gureak pijoak dira herrikoen aldean eta azken hauekin ez zutela ezer jakin nahi esan zuten! Almodovarrek pelikula egiteko modukoa izan zen. Fruituak eman ditza-ke, hemengo gazteek asteburuetan ez baitute eskolarik eta asko aspertzen baitira. Gainera, asko etorkinak dira eta ez dute inor hemen".

Ibaiondo herrian ez dagoela ondo ikusia uste du eta irudi hori aldatu beharra dagoela. "Garrantzitsua da herritarrak hona gerturatzea. Udalarekin harremanetan jarri gara gazteek gizarte lanak egin ditzaten eta herritarrentzako festaren bat egiteko asmoa ere badugu, ate irekien egun modukoa. Bestalde, denda solidarioarekin elkarlanean aritu gara. Dena den, herritarrak Ibaiondo begi txarrez ikusten dutela uste dut. Gure hezitzaileek ere errepre- sioa dela diote. Sistema penala halakoa da, baina giza edukia eman behar zaio eta gazteak pertsonak bezala tratatu".

Herritarrei beldurrik ez izateko eskatzen die. "Kontu apur batekin besterik ez da ibili behar. Ez diegu metxerorik edukitzen uzten, adibidez. Separazio gelak ere badi- tugu, badaezpada ere, gazteren bat oso oldarkor jartzen denerako. Kaletik drogen eraginpean etorri direnetan erabili izan ditugu, batik bat. Lasaigarriak ez dizkiegu ematen, egoera guztiontzat arriskutsua ez bada. Dena den, halakoetan ere nahiago dugu psikiatrikora eraman".

Ammann-ek gaztetxoekin lan egitea hel- duekin aritzea baino gogorragoa dela dio.

Eraikin bakoitzak irudian agertzen den patioaren modukoa du.



"Ez diet beldurrik, baina eurek bizitakoa oso larria da. Ez dute gizakian sinesten, mesfidantza handia dute. Haurren modu- koak dira. Behin mutiko bat zeharo oldar- tu zitzaidan eta galtzerdiekin elkar jotzen hasi ginen barrukoa ateratzeko. Halako batean negarrez hasi zen eta neskalagu- nak telefonoz deitu ziolako haserretu zela aitortu zidan. Ordura arte lortutako guztia galtzeko zorian izan zen horregatik!".

Gizarteratzea oso zaila dela onartzen du. "Irten bezain pronto, lehengora itzultzen dira. Izan ere, euren familiak oso egoera kaxkarrean bizi dira. Hezkuntza lan han- dia eginda ere, oso zaila da horri buelta ematea. Atzerritarrak, berriz, hemendik Aldundiaren pisuetara joan beharko lirate- ke. Askotan tokirik ez dagoenez, pentsioe- tara bidaltzen dituzte. Pentsio batean ego- tea guretzat oso atsegina ez bada, pentsa hemen familiarik eta lagunik ez duen batentzat! Batzuek guri deitzen digute lagun giroan egoteko. Gabonetan gurera gonbidatu genituen".

Gazte asko behin baino gehiagotan bidal-

tzen dituzte Ibaialdera. "Hemen familiarik ez duten atzerritarrek dena aurka dute: ez dute paperik eta 18 urte betetzen dituzte- nean Aldundiak bere kargu egiteari uzten dio. Gizarteak eta instituzioek eskaintza handiagoa dute presoentzat adin txikiko- entzat baino. Azken hauek asko dira".

Irtenbidea ez da erraza, ordea. "Nire ustez zentroetako irakaskuntza premia handie- na duten lanbideetara bideratuta egon beharko litzateke. Mutiko hauek mekanika izugarri atsegin dute, adibidez. Udaltzainek txikituta zeuden hiru moto zahar ekarri zituzten eta berehala lortu zuten hiruekin ibiliko zen bat osatzea. Bestalde, sistema malgua izan behar da: ondo egiten duenari saritu egin behar zaio, sisteman sinestu dezan".

Kale borrokagatik zigortutako gazte baka- rra pasatu da Ibaiondotik, Mikel Arretxe donostiarra. Arretxeren eta gainontzeko gazteen artean sekulako aldea zegoen. "Oso gustura izan nintzen berarekin, hezitzaile bat gehiago zen. Erreferentea zen gainontzekoentzat: guri baino kasu handiagoa egiten zioten. Hemen eduki- tzeak ez zuen zentzurik eta zainpeko askatasuna eskatu nuen berarentzat. Audientzia Nazionalera joan ginen eta oso gaizki atera zitzaigun. Gauza onak beste- rik ezin nituen esan berari buruz, baina Madrilgo Los Rosales zentroan sartu zuten. Oso esperientzia tristea izan zen niretzat, justizian sinesten baitut. Afaria zor diot. Madrilen era batera portatzen zela eta Zumarragan beste batera esan zion epaileak eta ea hori zergatik egiten zuen galdetu. Berak Zumarragan perso- na bezala tratatzen genuela erantzun zion. Hori entzun nionean, horren gaizki egiten ez dugun seinale iruditu zitzaidan".

Mikel Arretxe: “Bertako arauak deseginda dauden familietatik doazenentzat ondo daude, baina ez da guretzako tokia”

Ibaiondotik pasatu diren gazte gehienak kanpotarrak dira, baina euskaldunak ere izan dira. Hauen artean Mikel Arretxe donostiarra da. Hamasei urte zituela ETArri laguntzea leporatu zioten eta bi urte eman ditu adingabeen zentroetan: lehenengo Madrilgo Los Rosalesen, gero Zumarragan eta, azkenik, berriro Madrilan. Zumarragan hiru hilabete pasatxo egon zen, iaz. Madrilan baino askoz hobeto tratatu zutela dio, baina hemengoa ere kartzela dela gogorazi nahi du.

Noiz izan zinen Zumarragan?

lazko ekainaren 13an joan eta ia urrira arte izan nintzen.

Zer aurkitu zenuen bertan?

Erreformatorioa da. Ibaiondoko arauak deseginda dauden familietatik doazenentzat ondo daude, baina ez da guretzako tokia. Euren proiektuak ez du balio niretzat, ezin bainaute berriro hezi. Nik ez nituen hor zeuden gainontzeko mutilen arazoak. Nirekin besteekin erabiltzen zituzten arau berberak erabili nahi zituzten, baina ezinezkoa zen. Egia esan, lekuz kanpo nengoan.

Bestelakoan, tratua ona al zen?

Pertsona bezala tratatu ninduten, ez Madrilan bezala. Ez zuten kontuan hartu zergatik eraman ninduten bertara, baina Madrilgo arau berak bete behar nituen, tontakeriak: hau ez egin, egiten baduzu zigortu egingo zaitugu... Mehatxuak. Ez da adingabeen zentroa, espetxea baizik: arauak bete ezean, ziegara.

Arau horiek zentzu gehiago al dute ber-

Mikel Arretxe, Donostiako alde zaharrean. Argazkia: Imanol Otegi/Argazki Press.



tan dauden gainontzeko gazteen ezau-garriak kontuan hartuz gero?

Bai. Bizitzan zorte txarra izan dute familia kontuan, asko kanpotarrak dira eta ez dute heziketarik jaso. Ez dakite mahaian jartzen, ez ohea egiten, ez hortzak garbitzen, ez dute garbitzeko ohiturarik... Bertako arauen premia dute eta, gainera, irakurtzen eta lan munduan murgiltzen irakasten diete. Baina nik ez nuen horren beharrik eta askotan ni ere gainontzeko gazteei irakasten aritzen nintzen.

Zein alde daude Madrilgo zentroaren eta Zumarragakoaren artean?

Tratuan sekulako aldea dago. Gainera, Zumarragan bisita gehiago nituen eta bakoitzean denbora gehiago egoteko aukera ere bai. Baita dei gehiago, ordu

libre gehiago... Dena den, kontuan izan behar da entzerratuta gaudela, aspertuta, ez dugula alternatiba asko. Madrilgoaren modukoa da, baina suabeagoa.

Nola ematen zenuen eguna?

Egia esan, ez nuen ezer egiten. Ebakuntza izan nuen eta ohean etzanda, paseo txikiak ematen, telebista ikusten eta irakurtzen eman nuen denborarik handiena. Asko aspertu nintzen.

Zer nolako harremana izan zenuen bertako langileekin?

Normala, ona. Klean bezala: batzuekin ez nuen traturik eta beste batzuekin gehiegi. Banekien euren betebeharra niri arauak jartzea zela eta nirea, gustatu edo ez, horiek betetzea. Ez du merezi bertako langileekin gaizki eramatea: eurek etxera joaten ziren lotara eta ni ez.

Eta gainontzeko gazteekin?

Madrilen zegoen jendearen antzekoa zen: gehienak kanpotarrak, ijito asko, lapurretak eta bortxaketak egin dituen jendea... Dena den, harreman ona egin nuen beraiekin. 24 ordu eman behar genituen elkarrekin eta beharko moldatu. Ezin da 24 ordu isilik egon. Lagunak egin nituen, bai Madrilan eta bai Zumarragan. Gainera, hori ondo dator gure zigorra ari-nagoa egiteko.

Zer edo zer kontatzen al zizuten euren bizitzari buruz?

Kondenaz ez genuen hitz egiten, jendeak ez du jakin nahi bestea zergatik dagoen. Bakoitza bere bizitza aurrera ateratzen saiatzen da eta ez da besteenetan sartzen. Dena den, beraietzako kalea zaila

da. Bizitza aurrera atera beharra dute eta baliabide bakarra lapurtzea dute.

Etorkizunik badutela uste al duzu?

Oso etorkizun zaila ikusten diet. Familia askotan aita drogazalea da, ama emagaldua izandakoa, semeei ez diete kasurik egiten... Kaleko umeak dira. Zoritxarrez ez dute lanean hasteko erraztasunik. Ez dut Ibaiondo bezalako espetxeek duten

proiektuan sinesten. Izan ere, bertan irakasten diren balioek ez dute kanpoan balio. Barruan oso ondo ikusten dute beren burua eta denek betetzen dituzte, baina benetako errealitatea kanpoan dago eta oso ezberdina da. Kanean zer egin behar duten eta zer ez irakatsi behar zaie, ez barruan zer egin behar duten. Kanpoko errealitatea ikusarazi behar zaie,

ateratzen direnean prest egon daitezen. Bertan irakasten zaizkien gauza batzuk ondo etorriko zaizkie, baina egitasmoak, orokorrean, hutsaren hurrengoa balio du. Mehatxupean gauzak egitera behartzen da, baina horrek ez du kalerako balio. Gazteek autonomo izaten jakin behar dute. Euren kabuz erabaki behar dute ez zaiela drogatzea komeni, adibidez.

Ibaiondoko bost eraikinetan irudian ikusten diren moduko erlaxazio gela eta sukaldea daude. Gazteek igerilekua eta merendalekua ere badituzte.



Cesar Manzanos: "Zumarragakoa estatuan dauden gainontzekoak baino bigunagoa da, baina sarearen parte da"

Atxilotuen, presoek eta euren senitartekoek duintasunaren alde lan egiten duen Salhaketa taldea Ibaiondo moduko zentroen aurka dago. Cesar Manzanos bozeramalearekin hitz egiten izan gara eta euren ikuspuntua azaldu du.

Salhaketa 18 urtetik beherako gazteak halako zentroetan edukitzearen kontra dago guztiz. "Helduekin erabiltzen den logika bera erabiltzen da zigorrari eta

zigorraren betetzeari dagokionez. Hezkuntza irizpideei diziplina irizpideei baino garrantzia handiagoa ematen zaie-la esaten da, baina zainketa eta kontentzioa nagusitzen dira. Helduentzako erabiltzen den justizia eta exekuzio bera erabiltzen dira mutikoekin eta hori oso larria da", dio Manzanosek.

Presoen eskubideen alde lan egiten duen elkarteak Ibaiondo moduko zentro

gehienek kudeaketa esku pribatuetan dagoela ere salatzen du. "Estatua Gobernuak Kanpoko Erakundeek itxura hartzen duten enpresak finantzatzeko ari da. Zentro hauek administrazioak kudeatu beharko lituzke, enpresa pribatuen helburu bakarra aberastea baita eta oso erregimen gogorra ezartzen baitute. Toki batzuetan tortura ematen da: mutikoak lotzen dira, ziegetan ixten zaie...".

Zumarragako errealitatea ez da hori, noski. "Zumarragakoa estatuan dauden gainontzekoak baino bigunagoa da diziplina erregimenari eta baldintzei dagokiernez, baina estatu mailako sarearen parte da. Gazte batek arazo asko sortuko balitu, segurtasun handiagoko zentro batera bidaliko lukete, Madrilerara edo Murtzian". Manzanosek kartzeletan eta Ibaiondo modukoetan logika bera nagusitzen dela dio. "Bertan daudenen egoera ez da hobetzen gizarteratzearen arabera, zentroko erregimenera adaptatzearen arabera baizik. Preso onak pisuetara joaten dira eta zentroak kudeatzen dituztenek agindutako modura portatzen ez direnei zigorra gogortzen diete".

Gaizki iruditzen zaie zentroetako hezkuntzaren oinarria sariak eta zigorrak izatea. "Kontua ez da gaztea Ibaiondo bezalako toki batean egotea edo pisu batean egotea, horietan, zer tratatu jasozen duen baizik. Eskubideak bermatu behar zaizkio. Interno ona bada irteerak edo pisu batera joatea eskaintzen zaio, gaizki portatzen bada, ordea, zigorrak. Toki horietan diziplinan oinarritutako hezkuntza egiten da, ez liberatzailea. Azken hau toki ireki batean egin beharko litzateke eta norberaren borondatez. Ibaiondon, ordea, behartuta daude".

Kale borrokagatik epaituak izan diren gazteak Euskal Herritik kanpo egotea ere gaizki iruditzen zaio. "Eusko Jaurlaritzak zentroen gaineko eskuduntza duela dio, baina garrantzitsuena inkulpatuak bertan egotea da. Dispertsioa dela eta, gehientsuenak hemendik kanpo daude eta baldintza txarretan: jurisdikzio berezi batek prozesatuak dira eta isolamendu erregimena ezartzen zaie".



Cesar Manzanos.
Argazkia: Jon R. Bilbao.
Noticias de Álava.

*“Zentroetan egoera
berean daudenekin
elkartzen dira eta kalera
irteten direnean
lehengora itzultzen dira”*

Gai honen inguruan negozio handia dagoela ere salatu nahi du. "Ibaiondon dauden gazte gehienek ez dute gizarteraren segurtasuna arriskuan jartzen duen deliturik egin. Gizarte esparru marjinetatik datoz eta, berriro ere, pobrezia eta inmigrazioa kriminalizatzerara jotzen da. Horri esker, negozio handi bat sortu da eta bere babesean zaintzaileak, hezitzaileak... bizi dira".


Salhaketak nahiagoko luke gazteekin

beste neurri batzuk hartzea eta ez zentroetan sartzea. "Horretarako, epaileek oso argi eduki behar dute zer motibaziok eraman duen gaztea delitua egitera. Hezkuntza eta diru gabezia izango balitu, horren arabera erabaki beharko lukete zer neurri hartu eta ez kartzelaratu".

Euren ustez, alternatibak lantzea posible da. "Baliabiderik ez dagoela esaten dute, baina Zumarragako kartzela eraikitzea asko kostatu da eta mantentzea ere oso garestia da. Diru hori guztia beste era batera inberti zitekeen. Salhaketakook zigorren exekuziorako eredu alternatiboa landu dugu, baina horri kasu egin beharrean Zubietan eta Langraizen kartzela erraldoiak egiteaz hitz egiten ari dira".


Zumarragakoa azken alternatiba izan beharko litzatekeela dio. "Internamendua erabili aurretik, ahalik eta mekanismo gehien erabili beharko lirateke. Horretarako, inbertitu beharra dago. Ez naiz prebentzioaz soilik ari. Gazte horiek gizarterarentzako onuragarriak diren lanak egin beharko lituzkete, baina horretan aritzen den enpresarik ez dagoela esaten dute. Sortu egin beharko dira! Gizarte politikaren arloan lan egin behar da", dio Manzanosek.

Halakorik egin ezean, gazteek kartzelan bukatuko dutela dio. "Zentroetan beraien egoeran dauden beste batzuekin elkartzen dira eta kalera irteten direnean lehengora itzultzen dira. Komeni zaiena, ordea, beste dinamika batean daudenekin egotea da. Hala, atzerritarrentzako harrera-etxeen aurka ere bagaude. Zergatik ez bidali eurak hartzeko prest dauden familietara? Pedagogiaz eta psikologiaz apur bat dakien edonor gurekin bat dator".



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal



Eutsi GOIAi!!!!

Otamotzeko lagunek emandako aukera, edo marroiaren aurrean, -beti pentsatu izan dugu edozein gairi buruz iritzia eman ahal izateko Leioan asignatura multzo bat gainditzea baina zer edo zer gehiago behar dela, baina Otamotzek firma kualifikatuagoak lortzen dituen bitartean hemen gabiltza- adierazpen askatasunaren inguruan izandako hainbat gertaeren inguruan aritzea geneukan buruan. Iñaki De Juanak eta Oleguer Presas Bartzelonako futbol jokalaririk jaso dituzten erasoek sortutako ezkortasunari nolabait aurre egin nahian aldizkari honek laster aurkeztuko duen interneteko ataria edota inolako subentzioren beharrik gabe herriko gazte talde bat irrati bat sortzeko gai izan izanak sortu digun esperantza goraiatu nahi genituen, baina zoritxarrez albiste berri batek, artikulua mamia aldatzera behartu gaitu. Izan ere, herriko beste gazte bat espetxeratu

dute. Kartzelaratze guztiak duten gogortasunaren barruan, honako honek zur eta lur utzi gaitu, bidegabea eta anakronikoa izateaz gain, erabat desproporzionatua iruditzen baitzaigu. Leioan ikasi genuen apurraren artean, kazetariak objektibotasuna bilatu behar duela erakutsi ziguten eta balizko gai horren bila, "bertsio partziala" baina ez dugu aurkitu. Ostiaren bat jasotzeaz gain, zer egin zuen Aitorrek orain bost urte? Ze kalte eragin zituen bere ustezko eraso horrek? Proporziorik ba al du bertan jazotakoak eta horrenbeste denbora ondoren ia hiru urtetako kartzela zigorrak? Zertara dator hau guztia orain? Zer on egiten dio gizarteari berez masifikatuta dagoen Martuteneko kartzelan beste gazte bat sartzeak? Gure susmoak konfirmatzeko datuak eta erantzunak topatzeko beta izan aurretik kalean izango zarelakoan, Aitor, senide, lagun eta inguruko guztiak, eutsi Goia!!!!

Zer dakizu Ibaiondo adingabekoen zentroaz? Bizilagunok gehiago arduratu beharko ginatekeela uste al duzu?



Ander Kerejeta




Gazte Asanbladako kideak hango zuzendariarekin bildu ginen eta han daudenekin ekintzak egitea proposatu zigun. Kontua geldirik dago. Hala ere, kartzela dela uste dut eta hori ez da broma. Dena oso kontrolatuta dago eta oso zorrotza da. Guk beraiekin lan egin nahi dugu.

Eñaut Urbizu




Nik ez dut informaziorik eta herrian, orokorrean, gauza bera gertatzen dela uste dut. Eraiki zutenean arduratu egin nintzen, baina gero ahaztu egin dugu. Arazoak gertutik eragiten ez bagaitu, alboratu egiten dugu. Gainontzekoekin ere berdin egiten dugu. Hori gure errua da.

Oskar Perez



Bai, badakit han dagoela eta baita bertan kanpoko jendea dagoela batez ere. Onerako baldin bada... Herrian ez da gaiari buruz gehiegi hitz egiten, han dago eta kitto. Beharbada, hori horrela izatea ona ere bada.

Xabier Jorge



Ez dut ezagutzen, baina badakit han, San Kristobalerako bidean, dagoela. Han dagoen inor ere ez dut ezagutzen eta uste dut herritar gehienek ez dutela hari buruzko informazio gehiegirik. Hala ere, halako egoitza egotea ondo iruditzen zait.

Gaia: Emantzipazioa

Doinua: Norteko trenarena

Jorge Andueza, *Pitu*



Ez nekin zer zen hautsa kentzea
ta arropa garbitzea,
arropa txukun edukitzea
ezta zuzen plantxatzea.
Nahi nuenean kendu ohi nion
nire aitari kotxea,
bost izarreko hotel ederra
zen gurasoen etxea!

Larrosa koloreko biritza
omen zen etorkizuna,
ta hautsez betetako etxea
orain bihurtu zaiguna.
Erosketak egin behar dira
lanez beterik eguna,
ez nekien existitzen zenik
arropa argi ta iluna.

Ez nuen oso ondo pentsatu
alde egiteko aukera,
zeinek esango ote zidan nei
joateko neure etxera?
Ondo edo gaizki egin nuen
hauxe da dudan galdera,
dena den pozik gerturaten naiz
gurasona bazkaltzera.

iritziz iritzi

Josune Zarandona



Aldaketen garaia da

Maiatza iristear da eta hasi gara aurre-kanpainaren zantzuak nozitzen gure herrietan ere. Bi herriotako udalek zintzilik dituzten lanei ekin diete. Botuak eskuratu eta alkatetza lortzea da alderdi gehienen helburua, beste batzuen ahalik eta zinegotzi gehien eskuratzea. Herritarrak gara giltza eta gu izango gara alderdien jomuga.

Ez gaitzela engaina. Botua ematerako orduan, azken lau urte hauetan jazotako gainean hausnartu beharko genuke. Ez dugu ahaztu behar herritar talde baten ordezkartza udaletatik kanporatua izan dela eta ezker abertzalearen ahotsa isilarazten saiatu direla. Eta hori ustez demokratikoa den gizarte batean gertatzen ari da.

Ezin ahaztu, lau urte hauetan, bi herriotako alka-

teen arteko hika mitek herrietako interesek baino protagonismo gehiago hartu dutela. Mendeetan elkarren ondoan bizi izan diren bi herrien eta herri-tarren bizimodua eta elkarlana bi alkateen eza-dostasunen ondorioz urratzen utzi behar al dugu? Nire uste apalean, bi herri hauetan gauza asko daude aldatzeko eta hobetzeko. Haize berriak eta proposamen berrien garaia da. Horretarako, indar politiko guztiak udaletxean ordezkartuta egotea ezinbestekoa da, gizarte demokratiko bat eraikitzeko, gizabanako guztien eskubideak defendatu eta herritar guztien interesak bermatzeko. Horregatik Ezker Abertzalea, maiatzeko hauteskundeetan parte hartzeko lanean ari da. Indarrak biltzeko garaia delako. Orain Ezker Abertzalea.

1963

Santa Isabel eguna

Txistulariak: Pascual Okariz (lehen txistua), Martin Zenekorta (bigarren txistua) eta Ramon Esnaola (atabala).

Ezpatadantzariak: Migel Urteaga, Pello Gartziandia, Jose Maria Agirrebeña eta Severiano Egiguren.





Itxaropenik bada

Martin Aranburu

Politologoa

Euskal Herriko bake prozesuaz gauza asko idatzi dira. Beharragatik edo, baikortasun gorenetik beltzune sakonerera pasatzen garen herria gara. Aurki urtebete izango da ETA erakundeak su-etena eman zuenetik. Orduan, bakea bertan zegoela zirudien. Hilabeteak pasatu eta urrats zehatzik ikusten ez bage-nuen ere, itxaropenak bere bertan jarraitzen zuen, ETA-k Madrileko aireportuko atentua egin zuen arte. Orduan, beltzunea ikusi genuen berriz ere.

Itxaropentsua naiz ni oraindik ere. Bake prozesua bizirik da. Bere bisitasunak ez du emaitza onik ziurtatzen, baina behintzat, eske-natoki hobeetan sinesteko elementuak badaude gaur egun ere.

Gertuenen izan dugun bake prozesu saiakerari erreparatuz gero, 98koaz ari naitaizue, hark izan zuen bukaera eta honek daraman bilakaera alderatu baino ez dugu egin behar. Garai hartako proze-sua bukatu zenean, ETA-k pertsona baten hilketaren bidez eman zion amaiera su-etenari, eta jarraian, su-etena posible egin zuen adostasun politikoa publiko egin eta bukaera EA eta EAJ-ren bizkarrean utzi zuen. Oraingoan argi da atentatua indar froga zela. Zoritxarrez bi hildako eragin zituen, baina gure herriaren aitzakia-rekin erahildakoek sortzen diguten atsekabea gaindituz gero, garbi dago ETA-k ez ziola prozesuari amaiera eman nahi. Bigarren ele-mentua ETA-ren komunikatua izan zen. 98an erruak eta erant-zunkizunak banatzeari ekin bazion, oraingoan, ez du prozesuari

hasiera eman zion akordio politikoaren berri eman. Izan ere, akor-dio politikoaren berri eman izan balu, PSOE alderdia egoera oso latz batean utziko zuen. Prozesua bizi jarraitzen duelako eta akor-dio politikoa PSOE-rekin adostu nahi delako mantendu ditu politi-koki bizirik PSOE eta Zapatero. Hirugarren eta azken elementu baikorra Espainiako gobernuaren jarrera izan da. Prozesua amai-tutzat jotzen duen gobernu batek modu bortitz baten bidez ema-ten dio amaiera: publikoki amaiera ziurtatuz eta praktikoki ezker abertzalearen aurkako eraso judizial edo polizial bortitz bati eki-nez. Horrelakorik gertatu ez izanari itxura ona hartzen diot nik.

Halere, prozesua bizirik badago ere, abantailak eta arriskuak nabaritzen dira. Arriskua: bake militarra eta poliziala eraiki behar duten bi alde nagusiek (PSOE eta ETA) bake prozesuaren aldeko apostua egiteari utzi diezaiokete. Arrazoiak arrazoi, prozesuan sinestu nahi bada, bi aldeek epe motzeko nolabaiteko onurak nabaritu behar dituzte. Gobernuak edo ETA-koek prozesua uni-lateralki amaitutzat jo dezakete bestela. Logika honetan ulertzen dira gaur egun gertatzen diren hainbat fenomenoren larritasuna: De Juanaren egoera, kale borroka, Batasunaren ilegalizazioa, eta abar. Prozesuak pixkanaka baina beti aurrera egin behar du.

Honekin lotuta, hauteskunde egutegia kontrako elementua dugu. Izan ere, PSOE-k mugimenduak egutegi elektoralaren baitan egingo ditu. Zaila ikusten dut maiatzeko hauteskundeak baino lehen arrisku handirik hartzea. Are eta gehiago, hauteskundeetan emaitza onak ateraz gero, ez al dute Espainiako hauteskundeetan gehiengo absolutoa lortu nahiko inolako urratsik eman baino lehen? Tentazio horretan jausten badira arrisku latzean egongo gara. Batek nahi duen beta agian besteak ezin baitio eman.

Abantailak, ordea, badaude. Lehendabizikoa alde guztien partetik dagoen inplikazioa. Eusko Jaurilaritza, Ahotsak, Milakabilaka eta nazioarteko bake eragileen inplikazioa elkarrizketa politikoaren aldeko uholde sozialak dira. Denak lagungarriak. Inplikazio sozia-lak alderdien ardura maximizatu egiten du, eta ez dut proze-suaren porrotaren erantzule izan nahi duen indar politikorik dago-enik. Borondate politikoaz gain beharra ere badago kasu honetan. Gure herriak bakea behar duela esatea topikoa da, baina kasu honetan PSOE alderdia bakearen beharrean dago, PP-ren alde-an, euskal gatazkarekin amaitu duen alderdia izan nahi baitu.

Elementu asko geratzen dira komentatzeke. Dena dela, argi gehiago ikusten dut beltzuneak baino. Ea behingoagatik herri hau normalizatzea lortzen dugun. Merezi dugu eta.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER ARRATIBEL
OPTIKA

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



Lorea
Pinturak - Etxeko apainketak
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA


ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52




Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



Lurdes Rodríguez
Optiko-optometrista
Iparragirre, 1-Urretxu
☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com



arropa informala

Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57



Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU



Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA




Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA



Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80



ARROZTEGIA

Altzariak neurritara

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



alejandro albisua



☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga



Zumarragako ospitalerako ondorengo pertsonala behar da:


SUKALDARI NAGUSI 1, Ref: SN1
SUKALDARI 1, Ref: S1
3 KAMARERA, Ref: KAM1

Kurrikulumak: rrhh.urb@auzolagun.com



▼
Ale honetan Hare Haizea elkarteak antolatutako bidaiari saharar kanpamentuetan ateratako argazkiak ikus ditzakezue.

Andoni Berriotxo



**Eskola Publikoa:
zuen aukera
gure etorkizuna,
zatozte ikustera!!!**



**Matrikula epea:
Otsailaren 26tik martxoaren 9ra bitartean**



Tel.-fax: 943 72 12 14
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu



Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu

Iritzi merkeak

Jabier Otermin

EAKo zinegotzia Urretxun

Herritarron funtsezko eskubideetariko bat informazioa da. Komunikabideak albisteak kaleratzeko tresna dira. Kazetariak datuak pilatu ondoren, modu objektibo batean, berri horiek herritarroi helarazi dizkigute. Ez dugu zalantzan jartzen informazioa egiazkoa behar duela izan.

Komunikabideen zeregina ere bada hausnarketari ekitea eta herritarren kezka erantzutea. Komunikazioa eman dadin igorleak hartzailearen iritzia ere jaso behar du. Horregatik iritzi artikulua ugari irakur dezakegu prentsan nahiz aldizkarietan, *zuzendariari* sailak egunkari guztietan daude, duela gutxi jaiotzen dira Internet-en foroak eta blog-ak eta sms mezu asko bidaltzen dira irratietara eta telebistetara. Herritarren partaidetza sustatzen dituztela argi dago, era egoki batean eginez gero komunikazioaren mesederako direlarik. Halere, iritziak ere baditu bere mugak. Erabaki guztiak dira kritikagarriak baina adierazpen askatasunak ez dio biderik ematen norberari publikoki nahi duena esateko. Berriemaileak informazioa zabaltzerakoan arau batzuk bete behar dituen bezala, artikulua

idazten dituenak hainbat gauza kontutan hartu behar du. Horietako bat sinadura da eta, zer esanik ez, ahalik objektiboena informazioa eskaintzen bada.

Azkenaldi honetan zenbait lekutan anonimatuaz baliatu dira zehaztasunik gabeko salaketak eta irainak kaleratzeko. Iritzi edo foro atalen balizko babesari esker ezker-eskuin egurra banatzea merkea da gaur egun. *Sasikazetari* hauen helburua nabaria da, norbait susmopean jarri edo ondokoari delitua leporatu fiskaltzara abiatu beharrik gabe, askoz ere errazago delako funtsik gabeko esaldi batzuk lotzea, alegia.


Komunikabideek horrelako tresnak herritarren esku uzten dituztenean arduratsu jokatu behar dute. Herritarren eskubidea egiazko informazioa jasotzea denez, komunikabide bakoitzak aztertu behar du nola bermatu behar duen eskubide hori, are gehiago diru-laguntza publikoak jasoz gero. Eta ez da nahikoa jakinaraztea *komunikabide honek ez du bere gain hartzen adierazitako esanenetan iritzien erantzukizunik*. Sinesgarritasuna kolokan jarri dute.

Zintzo-Mintzo elkartearen oharra:

Otamotzen berrikuntzak gauza on askoren artean hanka sartze larriren bat ere ekarri digu. Izan ere, *Egurra partitzen* atala gaur arte sinadurarik gabe joan da eta horrek erantzuna emateko eskubide osoa duen ororen eskubidea zapuztu du. Hortaz, lerro hauekin barkamena eskatu nahi dizuegu bazkide, harpidedun, irakurle eta lehen aipatu dugun egoeran zaudetenei. Aldizkaria hobetzen jarraitu nahi dugu eta bestelako aipamen, kritika edo proposamenak (diseinuaz, antolaketaz...) atsegin handiz hartuko ditugu, zuen komentarioak zm@euskalnet.net helbidera bidalita. Amaitzeko, otamotz.com atari digitala laster jarriko dugu denon eskuragarri; baina zuen iritziak eta ideiak ezagutzeko, oraingoan, www.otamotz.com/index.php helbidean dagoela jakinarazi nahi dizuegu.

Esteban Barrena: Konpromisoa azken muturreraino

Esteban Barrenak ez du aurkezpen handirik behar, zumarragarren artean batez ere. Mende erdi darama ia Andre Maria Jasokundekoaren parrokiako bikarioei laguntzen eta duela 40 urte Antziñako Ama txistulari taldea sortu zuen. Berak ahal duen artean, behintzat, Zumarragan ez da igandeko txistularien kalejira faltako.



Egun Eliz-Kalen bizi zara, baina Zumarragan jaiotakoa al zara?

Bai, bai. Nahiz eta aita oñatiarra zen eta ama Ezkiokoa. Aita ez nuen ezagutu, lau urte nituenean hil baitzen. Bederatzi anaia-arreba ginen eta ni naiz gazteena. Zaharrenak Ezkion jaio ziren. Bertan harrobi bat zegoen eta aitak han egiten zuen lan. Gurasoek Ezkioko taberna ere izan zuten. Gero, Zumarragara etorri ziren, aita Badiola Hermanos lantegian hasi baitzen lanean.

Non bizi zineten?

Gurasoak Kalebarrenera etorri ziren, baina gero plaza zaharrera joan ziren: Nafarroa plazara. Bertan bizi izan ginen, gure etxea bota zuten arte. Orduan joan nintzen Elizkalera, pena handiarekin. Etxe zaharra zen, baina nirea zen: 40 urte inguru eman nituen bertan.

Non egin zenituen ikasketak?

Nazionaletan hasi nintzen, baina apaizgaitegira joan aurretik, bi urte eman nituen La Sallen prestaketa gisa. Apaizgaitegira sartzeko, hiru egun eman genituen azterketak egiten. Onartu egin ninduten eta zortzi urte eman nituen bertan.

Non izan zinen?

Donostiara joan nintzen, baina Guadalajaran ere izan nintzen. Latina ondo menperatzea beharrezkoa zen eta nik ez nuen ikasgai horrekin asmatzen. Hori dela eta, Siguenzara joan nintzen. 22 urterekin, berriz, etxeratu egin nintzen.

Nolatan ez zinen apaiz egin?

Min handiz atera nintzen apaizgaitegitik, negar malkoekin, baina nire betebeharra familia bat osatzea zela jabetu nintzen. Nola gertatu zen hori? Etxera etorri nintzen senitarteko bat hil zelako eta hemen ere lana zegoela ikusi nuen.

Apaizgaitegira itzuli eta beste bi hilabete eman nituen buruari bueltaka, oso gaizki pasatu nuen. Penaz atera nintzen, baina nire bokazioa hau zen: familia bat aurrera atera eta elizan lagundu.

Umetan hasiko zinen elizan...

Garai hartan etxe guztietan zegoen erlijio giroa. Egun gizarteak ez du uste Jainkoaren beharrik duenik, oso ondo bizi gara. Katekesian eta sendotzan ibiltzen

“Gotzainak eta denek

dakite goitik behera

elizari eman natzaiola,

erabateko dedikazioa

eskaintzen diot”

gara, baina etxean erlijio girorik ez bada-go, galduta gaude. Gurasoek esandakoak gureak baino gehiago balio du. Hori dela eta, hilean behin gurasoekin elkartzen gara, hurrei katekesian ematen dutenari buruz hitz egiteko. Umeein etxean egiteko lantxo bat ematen diegu eta gero hurrek lan hori katekesira ekartzen dute. Etxeetan kristau giroa sartzea nahi dugu.

Ez zara apaiza, baina apaiz askok baino lan handiagoa egiten duzu elizaren alde apaizgaitegitik atera zinenetik.

Vatikanoko II. kontzilioaren garaian atera nintzen: laikoen misioa zehaztu zen elizaren barruan, eliza denok osatzen dugula aldarrikatu zen, apaizak meza jendeari begira eta tokian tokiko hizkuntzan ematera pasatu ziren, laikoak mezatan irakurtzen hasi ginen... Gero eta gehiago egiten dugu: nik diakono funtzioa egiten dut, ez

nago ordenatuta, baina egunen batean, beharbada, gotzainak ordenatu egingo gaitu. Oraingoaz, gaixoak bisitatzen ditugu, Jauna ematen dugu, elizkizunak prestatzen ditugu... Ni neu, haurren katekesiaz eta sendotzaz ere arduratzen naiz.

Lanik ez zaizu falta.

Gehiegi dut. 57 urterekin jubilatatu nintzen eta emazteak neure bidea jarraitzeko esan zidan. Gotzainak eta denek dakite goitik behera elizari eman natzaiola, erabateko dedikazioa eskaintzen diot.

Urte hauetan guztietan, zenbat parroko pasatu dira Zumarragatik?

Zipriano Mendiak bataiatu ninduen, baina ezagutu nuenerako jubilatuta zegoen. Ni jaio berri nintzela Don Domingo etorri zen eta apaizgaitegitik bueltan berak jarraitzen zuen. 40 bat urte eman zituen bertan. Ondoren, Juan Jose Garmendia eta Jabier Etxeberria izan ziren eta, orain, Luis Mari Segurola. Don Domingo benetako bikarioa zen eta bost apaiz zituen laguntzeko. Garai hartako bikario funtzioa eta egungoa oso ezberdinak dira. Egun bi apaiz daude parrokan, baina luxua da eta aurki bakarra geldituko da.

Nola ikusten duzu eliza?

Oraindik nahiko atzeratuta dago, garaian garaira egokituta egon beharko litzateke. Apaiz kontserbadoreak daude oraindik eta horrela ez goaz inora. Zer gertatzen da emakumeekin? Elizaren barruan lan egiten dutenen %80 emakumea izango da eta baztertuta daude. Hori ezinezkoa da. Beharbada gehitxo esaten ari naiz, baina horrela ikusten dut. Vatikanoko II.-ak agintzen duenarekin ados nago. Orain hasi gara bertan jasotakoa betetzen. Bazen garaia! Gure parrokoak onartzen du, baina beste askok ez.

1965: Luistarrek antolatutako txapelketan saria jasotzen.



Gaia aldatuz, duela 10 bat urte jubilatuzinela esan duzu, non aritu zinen lanean ordura arte?

Apaiztegi kanpoko bizitza gogorra egin zitzaidan. Lehen hilabeteetan zalantzak izan nituen eta behin baino gehiagotan pentsatu nuen Arantzazura joatea. Kontabilitatea ikasi nuen soldadutza egin aurretik eta handik bueltan Banco de Vizcayan lanpostu bat libre zegoela jakin nuen. 34 urte eman nituen bankuan, azkeneko 18ak Zegaman. Nire adineko batzuei erretiroa eman zietela jakin nuenean, Bilbora deitu nuen. Elizari erabateko dedikazioa eskaini nahi nion. Ordura arte, larri ibili nintzen bi lanak uztartzeko.

Txistulari bandan ere makina bat ordu sartu dituzu.

Guadalajaran txistua jotzen ikasteko liburu bat aurkitu nuen, Aita Olazaran kaputxi-noarena, eta herriminak jota-edo, ikastea erabaki nuen. Anaiari eskatu nion musikatresna bidaltzeko. Etxera etorri nintzenean, 1964an, katekesiko txistulari eta dantzari taldean hasi nintzen. Joxe Mordo eta Gaspar Linazasoro ziren tartean.

Nola sortu zen Antziñako Ama txistulari taldea?

Katekesiko taldea desagertu egin zen eta Udal txistulariak hiru ziren: Okariz, Zenekorta eta San Pedro. Garai hartan hasi ziren sortzen txistulari taldeak eta Zumarragako batzuk ere ateratzen hasi ginen, Antziñako Ama izenarekin. Gure poltsikotik ordaintzen genituen partiturak. Udaletxetik deitu ziguten eta Jose Inazio Garmendia eta biok joan ginen. Garai hartako zinegotzi frankistak eta Uribesalgo alkatea zeuden gure zain. Hiru txistulariak jubilatuzera zihoazela eta gurekin kontratua sinatu nahi zutela esan ziguten. Lau txistulari nahi zituzten. Hitza eskatu nuen eta garai hartako joera taldeak sortzea zela esan nien. Beraiek ezetz eta ezetz eta ni baietz eta baietz. Azkenean, agirietan titular bezala lau lagun agertu bitartean, nahi genuena egiteko esan ziguten.

Neska-mutikoei irakasteko ere ahalegin handia egin zenuten.

Solfeoa irakasten genuen, baina oso lan pisutsua zen denontzat. Zorionez, Secundino Esnaola ikastetxea sortu zen

eta horrek gure lana asko arindu zuen. Musika ikasi ondoren, txistua jotzen ikasi nahi zutenak, guregana etortzen ziren. Musika ikastetxea laguntza handia izan da eta, gainera, solfeoa guk baino askoz ere hobeto irakasten dute.

Gazte asko pasatuko ziren urte haue-tan guztietan bandatik. Gazteekin ibiltzea atsegin duzun seinale.

Gazte pila bat pasatu dira, 300 baino gehiago. Bihotzekoa izan nuen eta dagoeneko ez naiz joaten entseguetara eta alardeetara. Lasaitasuna behar dut. Pasakallean, berriz, igandero parte hartzen dut. Joan zen astean hiru besterik ez ginen atera. Igandeetan herrian txisturik entzuten ez bada, gureak egin duela esaten diet gazteei. Besterik ez zaio gelditzen txistuari. Herri gutxitan jotzen da: Urretxun, Donostiako alde zaharrean... Jotzen ez dugunean jendea konturatu egiten da: *Gaur ez duzue jo*, esaten didate eta *euria izan da, arkupetan jo dugu*, erantzuten diet. Dena den, gazte jendea ulertzen dut: 5etan oheratu dena, ezin 9etan jaiki! Zer egingo zaio bada! Dagoeneko ezkondu daudenek eutsi egin behar diogula esaten didate. Baina txistua triste samar gelditzen da atabala jotzen ez bada.

Antion ez al duzu jotzen?

Aspaldi ez dut jo eta badut berriro aritzeko gogo. Antion nire funtzioa dut, elizan, eta horregatik utzi nuen. Gainera, egun horretan gazte guztiek jo nahi dute eta horrek poza ematen dit. *Segi, segi, nik urtetan jo dut*, esaten diet.

Zurekin aritutako gazteek txistua jotzen baino zer edo zer gehiago irakatsi zenielea esaten dute.

Beti aprobetxatu izan dut gazteei goxota-

sunak emateko. Emankizunen ondoren salda hartzera edo mokadutxoak egitera joaten gara. Santa Zezilia egunean, adibidez, afaria egiten dugu beti Zumardi elkartean. Taldean giroa sortu behar da eta berotasuna eman. Gazteak nire seme-alabak balira bezala tratatu izan ditut beti.

Bilobei ere txistua jotzen irakatsi behar al diezu?

Alabek jotzen dute eta hiru biloba ditut. Alabak seme nagusiak txistua joko duela esaten dit eta nik Beasainen izan beharko duela esaten diot, bertan bizi baitira. Zumarragara etorriko dela erantzuten dit.

“Guadalajaran txistua jotzen ikasteko liburu bat topatu nuen, eta herriminak jota-edo, ikastea erabaki nuen”

Bai Zumarragan eta bai Urretxun, ez dira txistulariak eta artisauak falta.

Urretxuko txistulariekin oso ondo moldatu izan gara beti. Ez dugu sekula arazorik izan. Bi herrien arteko hika-miken garaia pasatu zen, baina guk ez dugu halakorik ezagutu. Beraiek zer edo zer antolatu dutenean hara joan gara eta alderantziz.

Garai batean palan jokatzen zenuen.

Luistarrek eskuzko eta pala txapelketak antolatzen zituzten. Bigarrena maiatzean antolatzen zen eta beti pilotalekuan izaten nintzen: haurra nintzela, apaizgai nintzela ere bai... Apaiztegitik irten ondoren, jokatzen jarraitu nuen. Anekdotan moduan, finalera hamar aldiz baino gehiagotan

heldu nintzen eta sekula ez nuen irabazi. Jose Luis Idiakezekin, Joxe Mendizabal zenarekin eta Jose Antonio Ormazabalekin jokatu nuen. Ordizian eta Azkoitian ere jokatu genuen.

...

Ordiziara Jose Luisekin joan nintzen behin: berak 16 urte zituen eta nik 18. Kanporaketa Realeko jokalariek izandako Aierbe eta Lasaren aurka jokatu genuen eta irabazi egin genuen. Hurrengoan, geltokira heldu eta jendea zain genuen: irabazi beharra genuela esan ziguten, apustu asko egin zirela eta. Bakean uzteko esan genien. Partida osoa aurretik joan ginen eta aurkariak, partida galduta ikusi zutenean, frontisaren beste aldera bota zituzten pilota guztiak. Antolatzaileek deskalifikatu egin zituzten eta sekulako iskanbila sortu zen. Finalera heldu ginen, baina ez nuen jokaterik izan: seminariora joateko garaia heldu zen eta Inixio Zalduak jokatu zuen nire ordean.

Zelai-Arztiko pala txapelketa antolatzeko ere aritu zinen.

Duela hamar bat urte utzi nion antolatzeari, elizako lanengatik. Antolatzeaz gain, epaile lanetan aritzen nintzen. 18.30ean hasi eta 21.30ak arte egon behar zen bertan. Urolak hartu zituen antolaketa lanak.

Beste zaletasunik ba al duzu?

Egun osoa elizari ematen diot. Bazkalostean ordu erdiko siesta egiten dut eta 15.00etarako elizan naiz: bilerak direla, katekesia dela... Hor pasatzen dut eguna. Gustuen arratsaldean izaten naiz: txikito bat edo bi hartu, gehiago ez, etxera joan eta lasai egon. Zumardi elkarteko bazkidea ere banaiz, sortzaileetako.

Emazteak ez al du kezarik?

Berak esan zidan, gainera, nire bidea jarraitzeko. Duela hiruzpalau urte gotzaina etorri zen eta emazteari ni motzean lotzeko-edo esan zion. *Vamos a ver...* esan nion, *hona etorri aurretik bilera txiki bat egin nuen emaztearekin eta berak esan zidan nire martxa jarraitzeko.*

Luis Mari Segurola zurekin pozik izango da. Parroko guztiak ez dute halako laguntzaile finik izango...

Bera etorri aurretik ere hemen nengoen, e! Badakit apirilean zer edo zer egin nahian dabilzala, baina ez naiz omenaldien aldekoa, jubilatzeraz zoazela esan nahi baitu. Nik hamar edo hamabost urtean jarraitzeko asmoa dut, makila hartu arte behintzat. Dena den, zerbait egin nahi badute, egin dezatela. Ez daitezela pasa, halakoetan gaizki pasatzen baitut eta goiz baita oraindik halakoetarako. Bastoia hartzen dudanean, egin dezatela nahi dutena.



1996ko Zumarragako jaietan.

“Zintzo-Mintzo bada, euskara normalizaturik ez dagoelako da”

Otsailaren 10ean Zintzo-Mintzo euskaltzale elkartearen batzar nagusia izan zen. Bertan, 2006ko balantzea egin zen eta 2007ko egitasmoez hitz egin zen. Horren berri izateko, Josu Aztiria lehendakariarekin izan gara.

Nola ikusten duzu elkartea?

Proiektu eta asmo askorekin, egia esan. Azkenaldian aurrekontua asko igo zaigu, ia 100.000 eurokoa da eta borondatez mantentzen den elkarte batentzat asko da hori. Proiektuei bideragarritasuna eta iraunkortasuna eman nahi badiegu, gakoa baliabideak jartzea da eta, ahal bada, horretara dedikatuko diren pertsonak ere bai. Hala ere, ditugun lanei eta asmoei erantzuteko jende gehiago behar dugu: lan-talde desberdinak ongi osatu eta lanak banatu. Aurten mintegi bat antolatuko nahi dugu elkartearen etorkizunaz gogoe-ta egiteko eta parte hartzea handitzeko formulak bilatzeko. Eguneroko egitasmo-etatik aparteko gauza da, baina asko zaindu beharrekoa. Ezinbestekoa.

Zein da Zintzo-Mintzoren ekarpena?

Gure helburu nagusiak euskarazko erabilera esparruak sortu eta herriotako euskaldunak autoantolatze baliabideak jartzea da. Horrez gain, Udalek martxan jarritako Normalizazio Planari ekarpenak egitea ere bada. Hedabideen arloan, aisial-

Josu Aztiria, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunearen kanpoaldean.



dian, kulturgintzan eta hizkuntza-sentsibilizazioan ditugu jarrita gure egin xedeak. Euskaraz zein hutsune dauden ikusi eta autoantolaketa bidez horiek betetzea eta gure esku ez badaude bete daitezela aldarrikatzea dira gure asmoak.

Zer diozu egitasmo zehatzez?

Hedabideen atalean Otamotz aldizkaria, atari digitala eta Goierriko Hitza bultzatu ditugu eta eskualdeko telebista ere hor dugu helburutzat. Aisialdian, gaztetxoek

euskaraz ongi pasatzeko lekua izan zezaten gazte lokala jarri genuen martxan eta sekulako arrakasta du orain. Bertso eskolari dagokionez, une honetan handikeriarik gabe esan dezakegu Euskal Herrian puntakoa dela. Kulturgintzan, festetako ekintzez aparte, beste hainbat elkarte eta pertsonekin Kafe Antzokia sortzeko proiektuarekin gabiltza buru belarri. Euskaldunberriak euskaraz hitz egiteko *Mintzalaguna* proiektua ere hor dago.

Baita *Liburu lanketa* egitasmoa. Eta horrez gain, gure hizkuntza-eskubideak ere aldarrikatu eta horretarako sentsibilizazio-lana jorratu.

Zeintzuk dira 2007rako erronkak?

Hiru erronka nagusi jarriko nituzke nik. Batetik, martxan ditugun proiektuak gehiago sendotu: Otamotz berria, Goierriko Hitza, Gazte Lokala eta Bertso Eskola. Bestetik, proiektu berriak martxan jarri eta horri ekin: otamotz.com atari digitala, Kafe Antzokia eta aisialdi-eskaintza berri bat. Eta azkenik, elkartean norabidea eta parte hartzea sustatzeko mintegi baten antolaketa. Labur-labur horiek lirateke, nahiz eta gehiago badauden.

Eta aurreragoko?

Euskara elkarte bat bada, hori euskara normalizaturik ez dagoelako da, beraz albiste onena elkarerik ez egotea litzateke. Baina luzerako egongo garela iruditzen zait. Askok ia dena eginda dagoela uste badute ere, ez da horrela. Mezu katastrofistak ez ditut atsegin, baina ezta optimistegiak ere.

Zer esango zenieke herritarrei orokorrean eta gazteei konkretuki elkartera hurbildu daitezen?

Nire ustez euskararen aldeko estrategia eta komunikazio bideak errotik aldatu behar ditugu jendea erakartzeko. *Egin euskararen alde* leloak ez du ezertarako balio. Are gehiago: gazteei eta ez hain gazteei atzera botatzen die. Gustuko dituzten gauzak euskaraz bideratzeko aukera eman behar da. Jendeak agian ez du asko ezagutzen zer egiten dugun, autokritika ere egin behar da. Agian ez dugu gure irudia gehiegi proiektatu. Lan asko egiten dugu eta ez da ikusten. Ez gara oso marketing zaleak, prentsaurreko

gutxi ematen ditugu eta hemen edozer gauzagarik antolatzen dira...

Dena ez da autokritika izango...

Elkarte asko eta gizarte mugimenduak orokorrean horrela dabilta, ez da gure arazoa soilik. Bestetik, jendearen aldetik delegazionismoa dagoela iruditzen zait. Euskara teknikariak eta geroz eta egitura hobekak ditugu eta jendeak dena egina dagoela uste du. Ez da hala. Era berean, esan behar dugu gauza puntualak eta ekintza zehatzak egiteko jende asko etortzen dela: Otamotzek kolaboratzaile mordo bat ditu orain, aisialdi-monitoreak... Inguruan jende asko dabil eta 350 bazkide ez da gutxi. Euskara Elkartearen Topagunean gabilta eta ez gara elkarte txikiena, ezta gutxiagorik ere.

Nola ikusten duzu euskararen egoera Urretxu eta Zumarragan?

Betikoa, botila erdi beterik edo erdi hutsik ikusten duzun da kontua. Nik ez dut beti berdin ikusten, egia esan. Azkenaldian nahiko aurreratu dugula esan beharra daukat. Nire ustez badago egitura minimo bat, plan orokor bat badago... Oinarri bat jarri da, orain arte ez zegoena, eta oso ondo dago hori. Baina, hori bai, udalei euskararen normalizazioa Euskara batzordean edo euskara zinegotzian ez delegatzeko eskatu nahi diet. Sail eta zinegotzi guztiek urteko planean euskararen gaia presente eduki beharko lukete, genero berdintasunak edo ingurumen kontuak denok lotzen gaituen bezalaxe. Funtsezkoa da. Nire ustez Euskara batzordeetan garbi ikusten dute hori, askotan komentatu diegu eta. Horrez gain, edozein zinegotzik legediaren oinarritzak ezagutzen dituen bezala, Euskararen legeak zer dioten ezagutu beharko luke.

Bertan erakunde publikoek bi hizkuntza ofizialetan zerbitzua bermatzeko betebeharra dutela dio. Hori betetzen al da? Ezetz esango nuke eta euskaldunon hizkuntza-eskubideak ez dira errespetatzen.

Eta erabilerari buruz, zer diozu?

Egiten den lana ez da islatzen eta euskararen erabilera ez da igotzen, gazteen erabilera moteltzen ari da... Planak, egitasmoak-eta behar dira, baina jendeak zergatik ez du erabiltzen? Batetik erabileraren esparruak ez dituelako eta bestetik ez zaiolako motibagarria. Ba hori ere egin behar dugu, proiektu erakargarriak eta irekiak sortu euskaraz, gozamenarekin, dibertsioarekin, ondo pasatzearekin... lotuta egongo direnak. Eta euskara betiko klitxeetatik ere askatzen joan, dena ez da txistua eta triki-poteoa. Gogoeta horretatik dator Kafe Antzokiaren ideia.

Zer diozu udalek eta Zintzo-Mintzok sinatu duten hitzarmen berriaz?

Hitzarmenaren bidez elkarteak finantziarioa jasotzen du: urtean hainbat lan egiteagatik, hainbat diru. Aurten bi Udalek 47.000 euro inguru emango digute. Horrek guri egonkortasuna ematen digu, ez baitugu dirulaguntzen menpe egon beharrik eta oso ondo baloratzen dugu. Hitzarmenaren jarraipena ere egiten dugu urtean zehar, jarraipen-batzordearen bidez. Nik uste Udalek ere ondo baloratzen dutela. Guk herriari ekarpen bat egiten diogu eta horren aitortza da. Argi izan gainera diru laguntza publikorik gabe hainbat proiektu ez direla bideragarriak inoiz izango. Autofinantziarioa bilatu behar dugula? Ados, horrek autonomia handiagoa emango baitigu, baina diru laguntzak ere badagozkigu, gure lanaren aitortza dira.

Rugby-an jokatzera, Ordiziara

Joan den hamarkadan lagun batzuek taldea sortu zuten arren, rugby-ak ez du jarraitzaile asko gure artean. Hala, talde hark gutxi iraun zuen eta jokatu nahi dutenek Ordiziara joan behar dute. Bertako taldean Urretxu eta Zumarragako sei lagun aritzen dira, tartean Bittor Aranburu, Josu Etxaniz eta Beñat Kerejeta gazteak.



Bittor Aranburu, Josu Etxaniz eta Beñat Kerejeta, Ordizia taldearen elastikoa soinean dutela.

Hiruak DBHko hirugarren maila ikasten ari dira: Aranburu eta Kerejeta Joxe Mari Iparragirre institutuan eta Etxaniz La Salle-Legazpi ikastetxean. Bittor Aranburu izan zen Ordiziara joan zen lehena, Kerejetak oroitzen duen moduan. "Beste lagun batekin joan zen eta, gero, ni animatu ninduten", dio. Aranburu Idiazabalgo lagun baten bitartez joan zen. "Afaloste batean rugby-ko baloia atera zuen eta jokoa gustatu zitzaidan". Josuk Ordizian ezagutu zituen Beñat eta Bittor. "Ordizian lehengusuak ditut eta partida bat ikustera joan nintzen. Gustatu egin zitzaidan eta probatzea erabaki nuen. Ordura arte eskubaloian aritzen nintzen".

Aranburuk pozez hartu zituen herrikideak, noski. Berak hirugarren denboraldia du Ordizian eta beste biek, berriz, bigarrena. "Jokalari gehienak Ordizia eta ingurukoak dira: Beasain, Idiazabal, Segura, Lazkao... Herri askotako lagunak gaude. Izan ere, ez da futbola bezala: herri guztietan dago futbol taldea,

baina rugby taldea gutxi batzuetan bakarrik. Ordizian gain, Donostian, Zarautzen, Irunen, Eibarren, Hernanin eta Arrasaten bakarrik daude", diote.

Urretxu-Zumarragako hiru gazteentzat ohorea da, noski, gorengo mailan taldea duen klubean jokatzeko. "Seigarren urtea dugu jada Ohorezko Mailan eta sailkapenean laugarrenak gaude", diote harro. Oso gustura daude Ordizian. "Lagun pila bat egin ditugu. Taldean 22 gara eta oso giro ona dugu. Lotsa pixka batekin joan ginen, baina orain ordiziar asko ezagutzen ditugu".

Izan ere, bertako klubak talde asko ditu. "Gu rugby eskolan gaude oraindik. Gero, hiru talde daude. Gure taldea bitan banatu da eta gainontzeko herri gehienetan ere hori egin dute. Hala, partida gehiago jokatzeko aukera dugu. Topaketak egiten ditugu eta horietako bakoitzean hainbat partida jokatzen ditugu", azaldu dute.

Gipuzkoatik kanpo ere sarritan izan dira. "Santanderren, Iruñean... txapelketak jokatu ditugu. Hazparnen ere izan ginen. Martxoan, berriz, Valladolidera joango gara eta apirilean Pauera".

Partida guztien ostean, ohitura den legez, *hirugarren zatia* egiten dute. "Kirol honetan taldeen arteko harremana oso ona da. Partiden ondoren ogitar-tekoak jartzen dira eta beste taldekoe-kin batera jaten ditugu. Senior mailakoak, berriz, poteatzera joaten dira partiden ostean", diote.

Hiruei gustatuko litzaieke egunen batean talde nagusian aritzea. Izan ere, luzaroan jarraitzeko asmoa dute. Datorren urtean, kadete mailan arituko dira. "Kanpotik kolpe handiak hartzen

direla dirudi, baina ez da hala. Gazte hastea komeni da kolpeak jasotzen eta erortzen ikasteko. Lagunei gurekin etortzeko esaten diegu, baina kirol gogorra dela uste dute. Guk, orain arte, zuntz haustura besterik ez dugu izan; beste edozein kirolean bezala".

Jendeak rugby-an jokatzeko indartsua izan behar dela ere uste du. Etxaniz eta Kerejeta mutil sendoak dira, baina Aranburu arinagoa da. "Jokalaritxikiak ere badaude. Postu batzuetan jokalaritxikiak eta indartsuak behar dira eta

"Mundiala Frantzian jokatu behar da aurten eta, ahal badugu, partidaren bat ikustera joango gara"

beste batzuetan txikiak eta azkarrak. Jendeak guztiok bi metro altuerakoak eta 120 kilo pisukoak garela uste du".

Edonork jokatzeko moduko kirola den arren, inguru honetan ez da jende asko animatzen. Hala, klub askotan taldeak osatzeko arazoak dituzte. "Hernanin zaletasun handia dago. Arrasatekoen aurka, berriz, lau aldiz jokatu dugu eta guztietan lagun gutxirekin etorri dira. Ordizian zaletasun handiagoa dago. Iaz nagusien partida guztietara 900 lagun baino gehiago joan ziren".

Zaletu asko dituzten arren, Udalak ez ditu euren eskaera guztiak aintzat hartzen. "Zelai berriarekin arazoa dugu. Belar artifizialekoa egin nahi dute eta


horrek erre egiten du. Orain Trevijanon jokatzen dugu eta benetako belarra dugu. Herriko jendeak ere ez du zelaiz aldatzea nahi. Izan ere, oraingoan harmaila oso txikia da eta jendeak partida zelai ondoan ikusten du. Berrian, ordea, atletismo pista izango da eta ezingo da partida gertutik ikusi".

Eurek ere lehen taldearen partida ia guztiak ikusten dituzte. "Ahal dugun guztietan joaten gara. Izan ere, rugby-a izugarri gustatzen zaigu. Futboleko baino tentsio txikiagoa dagoela eta jokalarien artean giroa hobea dela uste dugu. Kontaktua ere ondo dago".

Gustatuko litzaieke, noski, Urretxu eta Zumarragan rugby taldea egotea. "Badakigu garai batean egon zela, kanpion jokatzen zuela eta ez zuela asko iraun. Dena den, hemen taldea sortuko balitz, Ordizian jarraituko genuke. Izan ere, han zaletasun handia dago eta jada hangora moldatu gara", diote hiruek.

Ordiziatik kanpo ere jarraitzen dute euren kirola. "Telebistan ikusten dugu: ETBn euskal taldeen artekoak eta Miarritzek Anoetan jokatutakoak bakarrik bota dituzte, baina Teledeporte eta Sportmania kateetakoak ere ikusten ditugu. Selekzioen arteko partidak eta Frantziako ligakoak botatzen dituzte, normalean".

Gertutasuna dela eta, beharbada, Frantziako rugby-a atsegin dute. "Hemendik kanpo sekulako zaletasuna dago eta askoz hobekien dira. Talde bezala, Miarritze atsegin dugu eta selekzioen artean Zeelanda Berria. Mundiala Frantzian jokatu behar da aurten eta, ahal badugu, partidaren bat ikustera joango gara".



Alex Areizaga

Informatika

Emule

Behin zerbitzarira konektatuta, guk nahi dugun elementua bilatzeari ekingo diogu, **Buscar** pestañan sakatuz. Hemen bilaketarako ezaugarriak zehaztuko ditugu: bilatu nahi dugun artxiboaren izena eta baita izaera ere (audioak, bideoak edo izen hori duten artxibo guztiak bilatu nahi ditugun). Ondoren aukeratu beheko zerrendan deskargatu nahi duzun artxiboa. Jaisten jarri ditugun elementuak Trafico izeneko pestañan aurki ditzakegu. Deskargaren nondik norakoak hemen ikusiko ditugu, (kolorezko barra berdez dagoenean deskarga burutu den seinale). Azkenik, jaitsi ditugun artxiboak aurkitzeko: **Mi PC - C: - Archivos de programa - Emule - Incoming** karpetara joan. Karpeta honetan gordetzen duguna emulen konektatuta dauden pertsonekin konpartituko dugu, hau da, hemen dugun guztia edonork deskarga dezake Emulera konektatuta gaudenean. Halakorik ez badugu nahi, deskargaturiko artxiboak beste karpeta batera mugitu eta kitto.




Izaro Soraluze

Osasuna

Aberasturiko elikagaiak

Elikagai bat aberastua dela esaten dugu nutriente baten edo gehiagoren kantitatea normalean edukiko lukeena baino handiagoa denean, beti ere aldaketa hau era artifizialean eman bada. Produktu hauen igoera nabarmena izan da. Kaltzioan aberastutako esnea, burdina eta bitaminetan aberatsak diren zerealak... Osagarri gisa zenbait egoeratan erabiltzea egokia izan liteke (adineko pertsonetan, haurdun dauden emakumeetan), beti ere elikadura osuntsua eta orekatua lortzeko bada. Aberastutakoen aldekoek, egungo produktuak negutegietan hazi eta kamaretan heldzen direnez, mineral eta bitaminetan urriagoak direla argudiatzen dute. Kontrakoek, aberaste honen ondorioz nutrienteen metabolismoan erreakzio eta desoreka ezberdinak ikusi direla ziurtatzen dute. Laburbilduz, elikadura egoki bat eramatea oreka kontua da. Bizitzako une bakoitzak bere beharrak ditu, ona izan daiteke zenbait momentutan gehigarriak hartzea. Dena den, ez dezagun aberastutako esnearekin, gailatekin eta margarinarekin gosaldtu. Oligoelementu gehiegikeria gabezia bezain arriskutsua da.



Gure Nagusiak
Un homenaje a nuestros mayores



Zum edizioak

Gure nagusiak

Jende adinekoak omenaldi polita jaso du. Gurekin zuzenean zaharrak, kontu zahar eta berriekin. Gogo onez entzun ditut. Adibidez, Barbara Carrascok dioena: "Ez genuen denborarik gauzak gustukoak genituen ala ez jakiteko, gauzak egin egin behar izaten ziren, eta kitto". Lan hau irakurri ahala hitz batzuk atera ditut koadernora (kriara, hacer cruzaillos, iñaurkiña, fox-trot...). Bakoitzak berekin du mundu bat. Nolanahi

ere, esan ez direnak, horiek bai jakingarri misteriotsuak. Horiek bilatzea, irakurlearen zeregina da. Jose Luis Ugartek ederki laburbiltzen du gure aiton-amonen bizilegea: "Gogorragoa eta motzagoa, baina mantsoagoa eta sinpleagoa". Zorionak liburua egin dutenei eta Joxe Manuel Bereziartuari bere-ziki. Ah, galderatxo bat: zer moduz ordaintzen dute gure nagusi hauek?

Iñaki Bastarrika


Lisabö

Ezlekuak

Min eman dit. Erraiak astindu dizkit. Barne ezlekuetara eramán nau, bidaia garratzagozan. Neure baitara bildu, goibeltasun eta urduritasun antzeko bat sentitu eta... Eta, halere, beste behin entzuteko beharra. Hunkitu egin nau. Eta zer besterik eskadakioke musikari, emozioetan eragiteko gaitasuna ez bada. Gal gintezke estiloen inguruko hiz-aspertuetan, alferrik. Hunkitzeko gaitasuna badu Lisabö-ren *Ezlekuak*

(Bidehuts) lan berriak. Ez ote da nahikoa? Oilo ipurdia jartzeko modu ezberdinak egon litezke, hori bai. Oilo ipurdia jarri ohi zait Duten *At* diskoaren amorru doinuekin, edota Portishead-en *Dummy*-ren hegaldi goxoe-kin, Pixies-en *Surfer Rosa*-ren indar frexkoarekin edota Maurizia eta Leonen alaitasun primitiboarekin. Oilo ipurdiarekin konforme ni. Konforme eta gustura.

Gorka Erostarbe



Jasmila Zbanic

Grbavica

Martxoaren 9an *Grbavica* filma eskainiko dute ButaK 21 eta Eraldatzen taldeek. Grbavica Sarajevoko auzo bat da. Gerran txikitu zenetako bat. Filmak hainbat emakumeren bizitzan zauri sendaezinak eragin zituen gertakariei buruz hitz egiten du: serbiar armadaren errepresioa, tratu txarrak eta bortxaketak. Ondorioak erakusteko, zuzendariak familia baten eguneroko bizitza aukeratu du: Esma eta bere alaba Sararena.

Txalotzekoa da Zbanic-en trebetasuna: istorioa ez du negar egiteko film bihurtu. Etorkizunean ipintzen duen itxaropenak hori lortzen laguntzen du. Nahiz eta tentsioak jarraitzen duen, bizitzak aurrera egiten du. Aurrez aurre jarri ditu helduak, gerra bizi izan zutenak, eta belaunaldi berriak. Azken hauen asimilazio ahalmena azpimarratuz, aurrera begiratu behar dela gogoratzen du.

ButaK 21 zineklub taldea

Mitxel Gonzalez

Gonzalezek La Salle-Legazpi ikastetxean egin zituen ikasketak eta, ondoren, hainbat lanetan aritu zen: Sarralden, Londongo jatetxe batean, informatika klaseak ematen, Sollubeko errepetidorean soinu teknikari lanetan eta Otsein lantegiko mantentze sailean. Halako batean, postariaren irudi erromantikoak bultzaturik, Correos-en hasi zen. Egun, Legazpin lan egiten du. Gonzalez euskara ikaslea eta ButaK 21 zineklub taldeko kidea ere bada. Zumarragako elizako eta La Salleko emanaldiei eta garai bateko zineklubari esker zaletu zela dio.



Zer izan nahi zenuen umetan?

Misiolaria edo kimikaria. Munduan zehar gaixo zeudenentzako sendagaiak sortu nahi nituen.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Musika entzutea eta irakurtzea. Astero ordu pare bat ematen dut bakarrik egongelan musika entzuten, lasaitu egiten nau.

Bizitzeko toki bat?

Hemen bizitzea gustuko dut, baina klima eta jendea tropikalagoak izatea gustatuko litzaidake. Komunikatzea kostatzen zaigu.

Egia al da txakurrek postariak gorroto dituztela?

Hala da. Oñatin eta Legazpin aritu naiz gutunak banatzen eta bietan arazoak izan ditut txakurrekin.

Maitasun gutunak ala bankuko fakturak?

Egun bankuko eta epaitegietako gutunak banatzen ditugu gehien. Aukeran, maitasunezkoak banatzea nahiago!

Gustuko aktoreak?

Humphrey Bogart eta Rita Hayworth. Honek liluratu egin ninduen *Gilda* filman. Ez zen aktore ona, baina 16 urterekin ikusi nuen...

Ileheriak ala beltzaranak?

Ileheriak gustatu zaizkit beti, baina azkenaldian ekialdeko emakumeak oso erakargarriak iruditzen zaizkit. Edertasun barea dute.

Egindako azken oparia?

Bi MP3 ilobentzat.

Eta jasotakoa?

Jertse bat.

Data bat?

Gertakizunak oso ondo gogoratzen ditut, baina ez datak. Franco

hil zen egunean lehenengoz zigarroa erre nuela oroitzen dut.

Neska eta mutil izen bana?

Sonia eta Ander.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Astegunetan Noticias de Gipuzkoa irakurtzen dut eta igandeetan, amaren etxean, DV. Bestalde, El País gustuko dut.

Gustuko telebista saioa?

House eta *Anatomía de Grey* telesailak. A! *Camera Café* ere asko atsegin dut. Gainera, irratia entzuteko ohitura dut.

Bereziki gorroto duzuna?

Salsa Rosa eta antzekoak. Telezaborra gorroto dut.

Liburu bat?

La conjura de los necios, *El decamerón* eta *El señor de los anillos*, adibidez, asko gustatu zitzaizkidan.

Abesti bat?

2.500 disko inguru ditut, denetik, baina azkenaldian Latin-jazz delakoa entzuten dut gehienbat.

Filma bat?

El halcón maltés, *2001: Odisea en el espacio* eta *Easy rider*.

Soinu bat?

Haizearena, hostoak eta belar altua mugitzen dituenear.

Usain bat?

Maitasunarena, alboan lotan duzun horrena.

Janari bat?

Mundu guztikoa atsegin dut, denetik jaten dut, erraiak izan ezik.

Ura ala...

Normalean ura, baina lagunarteko afarietan ardo ona atsegin dut.

GUJK, IKASTOLA



Urretxu-Zumarraga ikastola 0 TIK 18 RA GEUREKIN



Ikastola zabalik 7:15etik 18:30era, uztaila barne

Matrikula kanpaina: otsailaren 26tik martxoaren 9ra

Informazio bilerak: 27an euskaraz eta 28an gaztelaniaz

URRETXU
ZUMARRAGA



IKASTOLA
KOOP. ELK.

Urretxu-Zumarraga Ikastola
Pagoeta z/g. URRETXU
Tf. 943 72 00 26, 943 72 21 12
E-mail: urretxu@ikastola.net
www.uzikastola.net



GAES

Entzumen Zentroak

**ENTZUMEN ZUZENKETAN LEHENENGO ERAKUNDEA,
ORAIN, ZUGANDIK GERTUAGO**

UROLA GARAIARAKO ZENTRO BERRIA



Areizaga, 4 • Tel.: 943 72 98 83 • URRETXU